

EUSKALTEL TALDEAREN KODE ETIKOA

SARRERA	2
1.- XEDEA	3
2.- APLIKAZIO-EREMUA	3
3.- OINARRIZKO PRINTZIPIOAK	4
3.1.- LEGEAK, BARNE-ARAUDIA ETA KONTRATU-BALDINTZAK BETETZEA	4
3.2.- JOKABIDE ETIKOAN OINARRITUTAKO ERANTZUKIZUNA ETA PROFESIONALITASUNA	5
3.3.- FINANTZA-ARAUDI APLIKAGARRIA BETETZEA	6
3.4.- EUSKALTEL TALDEAREN INTERESAK INTERES PERTSONALEN GAINETIK JARTZEA	6
3.5.- KOMUNIKAZIO ARDURATSUA	7
3.6.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN PRIBATUTASUNA	7
3.7.-GIZA ESKUBIDEEKIKO ETA LAN-ESKUBIDEEKIKO KONPROMISOA	8
4.- INTERES-TALDEEKIKO HARREMANAK	8
4.1.- PERTSONAK	9
4.2.- BEZEROAK	12
4.3.- HORNITZAILEAK	12
4.4.- AKZIODUNAK	13
4.5.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	14
4.6.- GIZARTEA	15
5.- KODE ETIKOAREN INTERPRETAZIOA	16
6.- EZ-BETETZEAK	17
7.- KOMUNIKAZIOA, TREBAKUNTZA ETA JARRAIPENA	17
8.- IRAUNALDIA ETA ONARPENA	18

SARRERA

Kode Etiko honek garatzen ditu Taldea osatzen duten sozietateen balio eta printzipio korporatiboak. Euskaltel SA (aurrerantzean, Euskaltel Taldea) da erakunde nagusia, eta jokabide-arau lotesle batzuk ezartzen dizkie Euskaltel SAren Administrazio Kontseiluko kideei eta Euskaltel Taldeko profesionaleri eta hornitzaileei, zeinei buruzko zehaztasunak aurrerago azalduko diren dokumentu honetan. Honenbestez, sozietate hauei aplikatuko zaie Kodea: Euskaltel SAri, R Cable eta Telecable Telecomunicaciones SAUri, eta Euskaltel Taldeko gainerako enpresei.

Hauetara Euskaltel Taldearen jardueraren oinarritzko balioak: hurbiltasuna, zintzotasuna, berrikuntza eta bizkortasuna. Zerbitzu ematen duen lurralde eta gizarte guztietan jardun behar du Taldeak balio horien arabera.

Balio horiek betetzeak eguneroko jardunean etengabeko lana egitea, ohitura xumeak izatea, ez etsitzea eta aplikatu beharreko legedia nahiz Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte den araudia (politikak, eskuliburuak edo Taldeak bere borondatez bere egiten dituen barne-protokoloak) betetzea dakar.

Konpromiso hau hartzen du bere gain Euskaltel Taldeak: balio horien berri egokiro hedatuko duela, eta prestu eta zintzo jardungo dela bere interes-taldeekiko (bezeroak, langileak, hornitzaileak, administrazio publikoak, akziodunak eta, oro har, gizartea) harreman korporatiboetan, haien konfiantzaren hartzaile baita.

Kode Etikoak, berriz, ondoren aipatuko ditugun oinarritzko printzipioak ditu euskarri. Kode horrek arautzen du nolakoak izan behar duten Euskaltel Taldearen interes-taldeekiko harremanek. Oinarritzko printzipioak:

1. Legeak, barne-araudia eta kontratu bidezko harremanak betetzea
2. Jokabide etikoan oinarritutako erantzukizuna eta profesionaltasuna
3. Finantza-araudi aplikagarria betetzea
4. Euskaltel Taldearen interesak interes pertsonalen gainetik jartzea
5. Komunikazio arduratsua
6. Konfidentziasuna eta datuen pribatasuna
7. Giza eskubideekiko eta lan-eskubideekiko konpromisoa

Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte dira Kode Etikoa eta haren Jokabide Arauak, eta jarraian adieraziko dugunaren arabera ezagutu eta bete beharreko jarraibide batzuk ezartzen dituzte, Sistema garatzen duten politika, eskuliburu eta protokoloen eta enpresaz kanpoko araudi aplikagarriaren osagarri.

1. XEDEA

Hau ezartzea da Kode Etiko honen xedea: barruko eta kanpoko harremanetan Euskaltel Taldeko sozietateek, Euskaltel SAREN Administrazio Kontseiluko kideek eta Taldeko profesionalak eta hornitzaileek aintzat hartu behar dituzten balioak, jarduteko printzipioak eta jokabide-arauak.

Kode Etikoaren osagarri, Euskaltel Taldeak Kanal Etiko bat garatu du, honetarako:

1.- Edonolako kontsultak egiteko Kode Etiko honen interpretazioari eta aplikazioari, hura garatzen duten jokabide-arauei eta/edo Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemari dagokion edozein barne-edo kanpo-araudiri buruz, eta

2.- legez kanpoko jokabideen edo Kode Etikoaren, jokabide-arauen eta/edo aurreko atalean aipatutako araudiaren urratzea dakarten edonolako portaeren berri emateko.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Hauei aplikatu eta betearazi behar zaie, nahitaez, Kode Etikoa:

- Euskaltel SAREN Administrazio Kontseiluko kideei, legeari dagokionez Euskaltel Taldeko sozietate nagusia izaki. Administrazio Kontseiluko kideek beren gain hartu behar dituzte, aplikagarri zaizkien neurrian, Taldeko profesionalentzat Kode honek ezartzen dituen obligazioak, jarraian azalduko ditugunak.
- Beren jarduera profesionala Euskaltel Taldean garatzen dutenei (aurrerantzean, profesionalak), edozein dutela ere erantzukizun-maila, kokapen geografikoa edo funtzionala eta zerbitzu ematen dioten Euskaltel Taldeko sozietatea.

- Euskaltel Taldearentzat edozein motatako ondasunak eta/edo produktuak ematen dituzten edo zerbitzuak ematen dizkieten hirugarrenei edo, edozein modutara, haren kontura jarduten dutenei, hala nola hornitzaileei (aurrerantzean (Hornitzaileak), enpresa azpikontratatuari eta/edo profesional independenteei, edozein delarik ere emandako zerbitzuen helburua eta lan egiten duten lurraldea.

Konpainiaz kanpoko beste sozietate eta erakunde batzuetan Euskaltel Taldearen ordezkari gisa jarduten duten profesionalak Kode Etikoa bete behar dute beren jardunean, baldin eta kodea ez bada bateraezina ordezkari gisa diharduten sozietatearen arauekin; zalantzarik izanez gero, berriz, erakundearen duten arduradun hurrenari galdetu behar diote, Araudia Betearazteko Arduradunaren (Compliance Officer) edo Kanal Etikoaren bidez.

3.- OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

3.1.- Legeak, barne-araudia eta kontratu bidezko harremanak betetzea

Euskaltel Taldearen jarduerak, edonon egiten direla ere, leku bakoitzean indarrean diren legeak eta Taldeak bere borondatez jarri dituen arauak zorrotz betez garatu behar dira; halaber, hirugarrenekin sinatutako kontratuetako obligazioak bete behar dira, bai eta ebazpen administratibo eta judizial irmoak ere, eta berariaz egin behar zaie uko jokabide iruzurrezko eta bidegabe guztiei, bai eta sistema informatikoen, telekomunikazio-sareen eta datu informatikoen konfidentziasunaren, osotasunaren eta erabilgarritasunaren aurkako jokabideei ere, eta ez da onartu behar sistema, sare eta datu horien abusuzko erabilerarik.

Debekatuta daukate Euskaltel Taldeko profesionalak eta hornitzaileek hirugarren batzuekin batera edozein lege urratzea, bai eta legezkoak izan arren Euskaltel Taldearen izen ona edo interes-taldeek hari buruz duten iritzia kaltetu dezaketan parte hartzea.

Profesionalak une oro bete behar dituzte Gobernu Korporatiboko Sistemaren arauak eta Konpainiaren jardura arautzen duten prozedurak, eta Kode honetan ezarritako balio, printzipio, jokabide etiko eta jokabide-arauen kontrako portaerak saihestu behar dituzte.

Euskaltel Taldeak ezarriko ditu une bakoitzean behar diren mekanismoak aplikagarri diren legedia eta araudia ezagutzeko, hedatzeko eta haiei buruzko trebakuntza emateko.

3.2.- Jokabide etikoan oinarritutako erantzukizuna eta profesionaltasuna

Euskaltelen jarduerak modu proaktibo eta eraginkorrean egiten dira, bikaintasuna, kalitatea eta bezeroak gogobetetzea lortzeko, jokabide zintzoa oinarri dela eta zero tolerantziakoa politika aplikatuz ustelkeria-mota ororekiko. Taldeak ustelkeriaren aurkako politika bat garatuko du, besteak beste, eta nahitaez bete behar dute Taldeko profesional eta hornitzaile guztiek.

Euskaltel Taldeko profesionalek beren gain hartzen dute indibidualki eta profesionalki etikoki jarduteko erantzukizuna, bakoitzaren postuari dagokion erantzukizuna onartzearekin batera, betiere zintzotasun-, osotasun- eta lege-giroan, Euskaltel Taldearen enpresa-helburuak eta -emaitzak lortzen saiatuz, eta enpresaren xedeak partekatzen eta hartutako konpromisoak betetzen ahaleginduz.

Pertsonen edo lurraldeen artean sor litezkeen lehen gainerik, elkarlaneko giroa sortzeko eta talde-lanean oinarritutako helburuak lortzeko konpromisoa sustatzen du Euskaltel Taldeak bere profesionalen artean.

Euskaltel Taldeak zintzotasun-estandarrik gorenak bermatzen ditu bere negozio-harreman guztietan.

3.3.- Finantza-araudi aplikagarria betetzea

Euskaltel Taldearen informazio ekonomiko eta finantzarioak zorrotz islatu behar du konpainiaren egoera ekonomiari, finantzei eta ondareari dagokienez, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei eta finantza-informazioari buruzko nazioarteko arauetara jarraituz, aplikagarri baldin badira.

Euskaltel Taldeak modu fidagarrian eta araudi aplikagarria betez prestatu behar du dagokion finantza-informazioa, printzipio hauei jarraituz: transakzioen existentzia eta haiek behar bezala erregistratzea; informazioaren osotasuna; eskubide eta betebeharrak indarrean den legeriaren arabera balioestea, aurkeztea, xehatzea, konparatzea eta islatzea, indarrean den araudiari eta taldeak onetsitako politika fiskal korporatiboari jarraituz.

Euskaltel Taldeak hitzematen du lan egiten duen lurralde eta jurisdikzio guztietan beteko dituela bere kontabilitate- eta zerga-obligazioak, eta arrazoizko interpretazio batean oinarriturik hartuko dituela zerga-alorreko erabakiak.

3.4.- Euskaltel Taldearen interesak interes pertsonalen gainetik jartzea

Egoera hauetan sortzen dira interes-gatazkak: Euskaltel taldeko profesionalen eta/edo hornitzaileen interes pertsonalak Taldearen aurkakoak baldin badira eta dagozkien obligazioak betetzea eragozten badie, edo Taldean dituzten erantzukizunak zorrotz betetzeaz bestelako motibazioen eraginez jarduten badira.

Euskaltel Taldeetik kanpoko interesekiko independentzia nahitaezkoa da Taldeko profesionalen ardurak eta funtzioak ongi betetzeko. Taldearen interesei lehentasuna eman behar diete profesionalek, erabakietan eragin lezaketen interes pertsonalen edo hirugarrenen interesen gainetik.

Euskaltel Taldeko profesional eta hornitzaileek beren interes pertsonalen eta Taldearen interesen artean sor litezkeen gatazka-egoerak saihestu behar dituzte, eta ez dute Taldea ordezkatu behar, eragin behar edo esku hartu behar, zuzenean edo zeharka, haiek berak edo haiei lotutako hirugarrenek edozein arrazoi ekonomiko, familiar edo profesional garrantzitsu dela-eta interes pertsonal bat izan lezaketen erabakietan.

Gatazka-egoeran dagoen taldeko profesional edo hornitzaile orok horren berri emateko obligazioa du: profesionalek, horretarako dituzten barne-kanalen bidez —arduraduna, Araudia Betearazteko Arduraduna Compliance Officer) eta/edo Kanal Etikoa—; hornitzaileek, berriz, Euskaltelekin edo Kanal Etikoarekin dituzten solaskideen bitartez.

3.5.- Komunikazio arduratsua

Euskaltel Taldeak hitzematen du komunikazio-politika arduratsua, egiazkoa eta gardena baliatuko duela, publizitate engainagarri, desleial edo legez kontrakorik gabea eta hizkera sexista edo iraingarria erabiltzeari uko ginez beti.

Lan egiten duen lurralde bakoitzeko hizkuntza-eskubideak aintzat hartzen dituen komunikazio-politika baliatuko du Euskaltel Taldeak.

3.6.- Konfidentzialtasuna eta datuen pribatutasuna

Bere profesional, hornitzaile eta beste hirugarren batzuei buruz daukan informazioaren konfidentzialtasuna eta pribatutasuna errespetatzen duela bermatzen du Euskaltel Taldeak, betiere erantzuna emanez datu horien inguruan izan ditzakeen betebeharrak legal, administratibo edo judizialei. Halaber, datuak atzitzeko, zuzentzeko, kontsultatzeko edo haiei aurka egiteko eskubidea bermatzen du Euskaltel Taldeak horren beharra dagoen guztietan, bai eta datu pertsonalen babesaren gaineko legedian egindako aldaketak direla eta aplikagarri den beste zeinahi eskubide ere.

3.7.- Giza eskubideekiko eta lan-eskubideekiko konpromisoa

Euskaltel Taldeak berretsi egiten du Espainiako eta nazioarteko legediak onartzen dituzten giza eskubideekiko eta lanekoekiko duen konpromisoa, bai eta haiek errespetatzeko eta babesteko ere, bere sozietateetako edozeinek lan egiten duen edozein lekutan, hauetan jasotako printzipioen arabera:

- Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna, zeinak barne hartzen baititu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta hura kodifikatzeko erabili diren tresna nagusiak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, eta Laneko Oinarritzko Eskubide eta Printzipioei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1998ko Adierazpeneko oinarritzko eskubideak;
- Nazio Batuen Mundu Ituna;
- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, 2015eko irailaren 25ean Nazio Batuen Batzar Orokorraren ebazpenak onetsia, eta ebazpen horretako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak;
- enpresa multinazionalentzako ELGEren jarraibideak;
- enpresa multinazionaleri buruzko Hirualdeko Adierazpena eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen gizarte-politika;
- aurreko dokumentuak aldatzen edo ordezkatzeko dituztenak.

4.- INTERES-TALDEEKIKO HARREMANAK

Bere interes-taldeekiko harremanetan irizpide etikoak eta gardentasuna erabiltzeko konpromisoa du Euskaltel Taldeak, arduraz eta hurbiltasunez jardutekoa, eta interes-taldeen kezka eta premietara egokitzeakoa.

4.1. PERTSONAK

Interes-talde horretan sartzen dira Kode honetako 2. puntuan, "Aplikazio-eremua"-n, "Profesional" gisara ageri diren pertsona guztiak.

Euskaltel Taldeak lanean dihardu bere profesionalekin duen harremana eta pertsonen artekoa nazioartean onartuta dauden giza eskubideen errespetuan oinarritua egon dadin, betiere berari dagokion eremuan eta, bereziki, konpromiso hauei dagokienez:

Hautaketa, kontratazioa eta balorazioa

Euskaltel Taldeak irizpide hauen arabera hautatzen eta kontratatzen ditu profesionalak: berdintasuna, tratu-berdintasuna, norberaren gaitasunak eta hautagaien ahalmen profesionala; hautagaiak baloratzeko irizpide bakartzat, berriz, errendimendua, esfortzua eta talentua neurtzen dituztenak bakarrik onartzen ditu, edozein dela ere hautagaien egoera pertsonala.

Segurtasuna, osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa

Euskaltel taldeak laneko ingurune segurua eta eroso eskaintzen die bere profesionalei, eta segurtasun-politika korporatiboa hedatzeko eta sendotzeko konpromisoa bereganatzen du, arriskuen aurkako kontzientziazioa eta jokabide arduratsuak sustatuz.

Euskaltel taldeak bere profesionalen osasun-egoeraren eta -prebentzioaren etengabeko hobekuntza sustatzen du, bai eta fisikoki zaintzea eta ohitura osasungarriak hartzea ere.

Euskaltel Taldeak bere profesionalen osasuna eta osotasun fisikoa zaintzen ditu; horretarako, laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat garatu du. Sistema horretan sartzen dira lantoki guztietako jarduerak eta aktibitate-fase guztiak, arriskuak saihestearren edo gutxitzearen eta, horrenbestez, laneko ingurune segurua eta egonkorra eskaintzearen.

Errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko tratua oinarri duen laneko ingurunea

Euskaltel Taldeak lan behartu eta nahitaezkoa arbuiatzeko konpromisoa du, bai eta haurren lana galaraztekoa ere, eta bere pertsona guztiak errespetatzen dituen diskriminaziorik gabeko laneko ingurunea eskaintzen du.

Hau dute oinarri Euskaltel Taldeak garatu dituen pertsonak kudeatzeko politikak: ez dute onartzen inolako lan beharturik edo bortxazko lanik.

Harreman profesionalak, berriz, Taldeko profesionalen artean eta horien eta hornitzaileen artean elkarrekiko errespeturako eskubidean eta obligazioan daude oinarrituta, zuzen jokatzu ahaleginak eta balioa partekatzean eta betiere lankidetzan lehenetsiz.

Oreka profesionalaren eta pertsonalaren bila

Euskaltel Taldeak uztartze-politikak garatzen ditu bere profesionalentzat, jarduera profesionalaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka sustatzeko.

Tratu- eta aukera-berdintasuna.

Euskaltel Taldeak emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua sustatzen dituzten politikak garatzen ditu bere profesionalentzat. Inolako diskriminaziorik eza dute oinarri politika horiek; helburua, berriz, Taldeko profesionalen talentua eta ibilbide profesionala sustatzea, eta garapen profesionalerako aukera berak eskaintzea denei.

Euskaltelek konpromiso hau bereganatzen du: bere profesionalen garapena sustatzeko, gaitasun pertsonal eta profesionalak garatzeko trebakuntza-politika egoki bat prestatuko duela, aukera-berdintasunean oinarritutako giroa sustatzeko, genero, arraza, erlijio, sexu-orientazio edo beste edozein arazoik eragindako diskriminaziorik gabe.

Lanean jazarpenik ez

Euskaltel Taldeak arbuiatu egiten du lanean sor daitekeen diskriminazio-mota oro. Irmoki gaitzesten du Taldeak jazarpen moralizat edo sexualizat jo daitekeen profesionalen edo hornitzaileen edozein jokabide edo jarrera, bai eta pertsonaren duintasunaren aurkako edonolako jokabide edo jarrera ere; beraz, Euskaltelen profesionalak eta hornitzaileak ez dute izan behar jazarpen moralizat edo sexualizat jo daitekeen jokabiderik.

Euskaltel Taldeak une bakoitzean egoki deritzen protokoloak ezarriko ditu jazarpenari eta onartzen ez diren beste jokabide batzuei aurre egiteko, Kode Etiko honen garapen gisara.

Taldeko profesionalen datu pertsonalen intimitatea, konfidentzialtasuna eta pribatutasuna errespetatzea

Euskaltel Taldeak pertsonen intimitatearekiko eskubidea errespetatzen du, arlo guztietan eta, bereziki, informazio pertsonalarekin lotutakoetan. Halaber, bere profesionalen datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna babesten dituzten politikak garatzen ditu, eta hitzematen du indarrean den legediak baimentzen dituen datuak bakarrik erabiliko dituela.

Opariak, dohainak eta mesedeak

Euskaltel Taldeko profesionalak ez diete eskatu eta eskaini behar oparirik, dohainik eta mesederik hirugarren batzuei, ez eta haiengandik halakorik jaso ere, baldin eta hori egiteak profesionalen objektibotasunari edo harreman komertzial profesional bati eragiten badio. Hirugarrenen zerrendan sartzen ditugu, besteak beste, bezeroak, hornitzaileak eta administrazio publikoak.

Zalantzarik sortuz gero opari, dohain edo mesede baten onargarritasunaz, ez da halakorik hartu behar edo, hala badagokio, enpresako agintari hurbilenari edo Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer) galdetu behar zaio, edo Kanal Etikora jo. Ezinezkoa irudituz gero opari, dohain edo mesede bat ez onartzea, Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer) eman behar zaio egoeraren berri; hark, berriz, Araudia Betearazteko Batzordeari.

4.2. BEZEROAK

Interes-talde horretan sartzen dira Euskaltel Taldeko sozietateen ondasunak eta zerbitzuak kontratatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

Euskaltel Taldeak harreman iraunkorrek nahi ditu bezeroekin, haien ezagutza eta arreta hurbila oinarri direla betiere.

Euskaltel Taldeak hitzematzen du bezeroen premia, eskari eta kulturara egokitutako produktu- eta zerbitzu-eskaintza zabala jarriko duela haien eskura, dagokien eremu geografikoan, eta prestu eta zorrotz kudeatuko duela eskaintza, bezeroei tratu adeitsua eta atsegina emanaz.

Euskaltel Taldeak hitzematzen du kalitatea kudeatu eta hobetu egingo duela, bere produktu eta zerbitzuen segurtasun- eta kalitate-estandar altuak berritzen eta eskaintzen saiatuz, erreklamazioei azkar eta eraginkorki erantzunez eta bezeroaren gogobetetzea lortzen ahaleginduz, baita indarrean den araudiak agintzen duenaz landa ere.

4.3. HORNITZAILEAK

Interes-talde horretan sartzen dira Kode honetako 2. puntuan, "Aplikazio-eremua"-n, "Hornitzaile" gisara ageri diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

Euskaltel Taldeak berdintasuna bermatzen du bere hornitzaileen hautaketan, eta haien kontratazioari dagozkion harreman komertzialen zintzotasuna eta zuzentasuna.

Konfiantza eta alde bien onura, horiek dira Euskaltel Taldearen irizpide nagusiak hornitzaileekiko harremanetarako. Taldearen iritziz, harreman etikoek bermatu egiten dute merkataritzaren jarduera normala, bai eta jasagarritasunaren aurkako arrisku oro gutxitzeko aldean interesa ere.

Hornitzaileek, dagokien heinean, zorrotz bete behar dituzte laneko segurtasun- eta osasun-arauak, eta beren jarduerak eragiten dieten pertsonen segurtasunaz arduratu behar dute.

Euskaltel Taldeak sustatu egingo du bere hornitzaileen artean Kode Etiko honen eta haren Jokabide Arauen ezagutza, aplikagarri zaien heinean, bai eta testu horietan jasota dauden Euskaltel Taldearen balio eta printzipioen ezagutza ere.

4.4. AKZIODUNAK

Interes-talde horretan sartzen dira lege-ondorioetarako Taldeko sozietate nagusia den Euskaltel SAREN kapital sozialaren jabe diren pertsona fisikoak eta entitate juridikoak.

Konpromiso hauek betetzea da Euskaltel Taldearen akziodunekiko harremanen oinarria:

Balio-handitzea

Euskaltel Taldeak bere akziodunetikiko zintzo eta gardenki jarduteko konpromisoa adierazten du, eta Taldearen balioa zaindu, babestu eta handitzeko erantzukizuna bereganatzen, dagozkion kapital-itzulketara politikak ezarriz.

Gobernu egokia

Euskaltel Taldeak hitzematen du irizpide etikoak eta gardentasuna izango dituztela oinarri bere akziodunetikiko harremanek, eta Taldearen jardueren eta haren egoera ekonomiko eta finantzarioaren gaineko informazio egiazkoa, osoa eta zorrotza emango duela.

Euskaltel Taldeak etengabe dihardu lanean barruko kontrolerako eta arriskuak aztertzeke eta kudeatzeko sistema bat ezarria izateko, barruko eta kanpoko baliabideak behar bezala kudeatzeko, interes-taldeetarako lege-obligazioak eta bestelako konpromisoak onarturik.

Lehia leiala

Euskaltel Taldeak hitzematen du leialki lehiatuko dela zerbitzu ematen duen merkatuetan eta merkatu librean sustatuko duela; halaber, uko egiten dio lehia desleialeko edonolako jarduerari, bai legea bai Euskaltel Taldeak bere borondatez betetzea erabaki duen arauak urratzen dituztenak.

Balore-merkatuetan jarduteko araudia

"Balore Merkatuen alorreko Jokabideei buruzko Euskaltel SAREN Barne Araudia" nahitaez bete behar dute Euskaltel SAREN Administrazio Kontseiluko eta Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeko kideek, bai eta balore-merkatuetako jarduerekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten Taldeko profesionalak ere.

4.5.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Talde horretan sartzen dira administrazio publiko guztiak, tokian tokikoetatik hasi eta nazioartekoetara bitartekoak, eremu geografiko horietako erregulazio-organismoak ere barne direla.

Euskaltel Taldeak lankidetzara, gardentasuna, konfiantza, leialtasuna eta fede ona printzipioak erabiltzen ditu administrazio publikoetarako eguneroko jardunean.

Euskaltel Taldeak administrazio publikoekiko elkarlaneko harreman hurbila eta profesionala sustatuko du, eta ahalik eta eperik laburrenean bidaliko du eskatzen zaion dokumentazioa eta informazioa, behar duen irismenaz.

4.6.- GIZARTEA

Interes-talde horretan sartzen dira antolakuntza-arau jakin batzuen arabera elkarrekin harremanetan diharduten eta Euskaltel taldearen jarduerak eragina duten edozein lurraldetan kultura bera partekatzen duten pertsonen.

Jarduera sozialki arduratsua

Euskaltelek, legez dituen betebeharrak betetzeaz gain, konpromisoa hartzen du sozialki arduraz jarduteko lan egiten duen lurralde guztietan, lan sozial ahalik eta eraginkorrena egiteko aukera ematen dioten jardueretan gogotsu parte hartuz, bere ahalmenen arabera betiere.

Halaber, konpromiso hau bereganatzen du: telekomunikazio-ekipamendu eta -azpiegituretan inbertsioak eginez eta bere zerbitzuak emanez, enpresa-jarduerak garatzen dituen gizartearen bizi-kalitatea hobetuko, balioa eta aberastasuna sortuko eta garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko duela.

Garapen jasangarria eta ingurumenarekiko konpromisoa

Euskaltel Taldeak hitzematzen du zaindu egingo dituela ingurumena, osasuna eta segurtasun publikoa, garapen jasangarriari laguntzearen eraginkorki erabiliko dituela baliabideak eta ahalik eta gehiena gutxituko dituela bere jardueraren ingurumen-inpaktuak lan egiten duen lurraldeetan.

Euskaltel Taldeak bat egiten du klima-aldaketaren aurkako borrokarekin, eta energia-aurrezpena sustatzen du, bai eta hondakin gutxiago sortzea eta haiek tratatzea ere, ahalik eta txikiena izan dadin Taldeko enpresen ingurumen-inpaktua.

Babesletzak eta lankidetzak

Honela gauzatzen da Euskaltel Taldearen konpromisoa zerbitzu ematen duen lurralde bakoitzeko gizartearekiko: taldeko sozietate bakoitzak babesletzak eta lankidetzak sustatzen ditu, eta, dagozkien hitzarmenen eta baliabide-esleipenen bidez, zenbait elkartetara bideratzen, Taldearen estrategiarekin bat eginik.

Euskaltel Taldeak lankidetzatza sustatzen du bere profesionalen eta zerbitzu ematen duen lurraldeetako interes sozial eta kulturalerako erakundeen artean, boluntarioratza korporatiboko programen bidez, besteak beste.

5.- KODE ETIKOAREN INTERPRETAZIOA

Euskaltel Taldearen jarduerari dagokion araudia zaintzeaz eta betearazteaz arduratzen den Araudia Betearazteko Batzordearen eginkizunen artean dago, besteak beste, Kode Etikoa eta Gobernu Korporatiboko Sistema betetzen diren ikuskatzea eta zaintzea, araei horien interpretazioak sortzen dituen jakinarazpenak, zalantzak eta gorabeherak ebaztea eta haiek betearazteko neurriak hartzea.

Kode Etiko honen edukia ezin da aplikatu eguneroko jardunean sortzen diren egoera guztietara; beraz, hau da bere egitekoa: Euskaltel Taldeko profesionalen eta hornitzaileen jardura gidatzea; beraz, egoera jakin batean zer egin behar den argi ikusten ez bada, profesionalak enpresako bere arduradunari galdetu behar diote, edo Araudia Betearazteko Arduradunari (Compliance Officer), edo Taldeko konpainietako Kanal Etikoa erabili.

Hornitzaileek, berriz, Kanal Etikoaren bidez egin ditzakete kontsultak, edo Euskaltelen duten solaskidearengana jo, zalantzaren edo kontsultaren izapideak egin ditzan.

6.- EZ-BETETZEAK

Kode Etiko hau eta haren jokabide-arauak ez betetzeak, jada behar bezala ziurtatuta eta kalifikatuta daudela, ondorio hau ekar dezake: erantzukizunak eta/edo zigorrak eskatzea, aplikagarri den legediaren, Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren eta/edo, halakorik balego, dagokion enpresa-hitzarmeneko diziiplina-erregimenaren arabera.

Profesionalen batek susmatzen badu edo baldin badaki Kode Etiko honen edo hura garatzen duten Jokabide Arauen eta/edo Euskaltel Taldeko Gobernu Korporatiboko Sistemaren beste edozein arauen ez-betetzereen bat egon dela, enpresako bere arduradun hurbilenari eman behar dio horren berri, hark Euskaltel Taldeko Barne Ikuskaritzaren Zuzendaritzari jakinaraz diezaion, edo, bestela, Kanal Etikora jo behar du (Taldeko sozietate guztiek dute). Informazioaren konfidentzialtasuna bermatu egingo zaio, beti, ez-betetzereen berri ematen duenari. Informazioak ezin du anonimoa izan. Hornitzaileek ere Kanal Etikoaren bidez eman dezakete ez-betetzereen berri.

Ez-betetze bati buruzko informazioa emateak ez dio ondorio negatiborik ekarriko salaketa-egileari, zuzenean berari egozgarriak ez badira behintzat, eta aintzat hartuko dira salatuaren eskubideak, ez-betetzeari buruzko jakinarazpena faltsua bada.

Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte da Kanal Etikoa, eta taldea osatzen duten sozietateetan aplikatzen den "Euskaltel Taldearen Kanal Etikoa" dokumentuak arautzen du.

7.- KOMUNIKAZIOA, TREBAKUNTZA ETA JARRAIPENA

Taldeko sozietate bakoitzeko intranetean argitaratuko dira Kode Etikoa, Jokabide Arauak eta Kanal Etikoa, bai eta haietako bakoitzaren webgune korporatiboan ere.

Araudia Betearazteko Arduradunak, dagozkien sailekin elkarlanean, trebakuntza-saioak komunikatu, antolatu eta garatuko ditu, hainbatean behin, Kode Etikoa eta haren Jokabide Arauak Euskaltel Taldeko profesional guztiei ezagutarazteko eta aplikatzeko, bai eta hornitzaileei ere, dagokien heinean.

Euskaltel Taldeko sozietateren batean lanean hasten diren guztien lan-kontratuari erantsiko zaizkie Kode Etikoa eta haren Jokabide Arauak.

Euskaltel Taldeak eragiketa-mailako kontrolak ditu ezarriak arriskuak kudeatzeko bere politiketan, arriskuak gutxitzeko eta Kode hau betetzen dela bermatzeko. Kontrol horien artean, taldeko sozietate bakoitzak Kode Etikoa zenbateraino betetzen duen jakiteko barne-auditoretzak ere egin daitezke, egoki deritzon maiztasuna eta irismena ezarrita haietako bakoitzari.

8. IRAUPENA ETA ONESPENA

Euskaltel Saren Administrazio Kontseiluak onetsi ditu Kode Etiko hau eta hura garatzen duten Jokabide Arauak, Euskaltel Taldeko enpresetan aplika daitezzen.

Une bakoitzean egoki irizten zaien politika, eskuliburu edo protokoloen bidez garatuko da Kode Etikoa, eta hainbatean behin berrikusi eta eguneratuko da, aldaketak txertatzeko (araudi-aldaketak, Euskaltel Taldekoak, hura osatzen duten enpresetakoak) eta interes-taldeek egiten dituzten iradokizunak eta proposamenak eransteko.

Administrazio Kontseiluak onetsi behar du Kode Etiko hau aldatzen duen zeinahi berrikuspen eta eguneratze, eta dagokion jakinarazpena eta trebakuntza-ekintza behar ditu.